

**BALENTIN ENBEITA eta****MUXIKAKO ESKOLA ZAHARRA**

Bertsolaritzak Bizkaian loraldi bat izan badu, Muxikako Enbeitatarren belaunaldiari eskerrak izan da, zati on batean behintzat. Gaurkoz ez ditugu aitatuko Joan Antonio Enbeita, «URRETXINDORRA» eta sasoe haretako beste batzuk. Urtxoagora gatoz. Oraindiño bizirik eta plazarik plaza txoriak legez ibiltzen dan Balentin Enbeitagana.

Balentin Muxikako Uzparitxako baserrian jaio zen 1906an. Kepa Enbeita «URRETXINDORRA» deitzen ziotenaren seme zaharrena dugu. Hamalau urte gaz hasi zen bertsoan bere aitita zana gaz (Joan Antoniogaz) baina plazara lehenengoz bere aita zana gaz erten zen hogeitaz urte gaz. Balentinek bazituen gerra aurreko denbora haretan beragaz bertsoan egiten zuten lagunak ere: Uriarte dimatarra, eta Mungia-Txorierrri inguruan bardin. Hogeita hiru urte zituela Mungian eratu zen Bizkaiko txapelketa batean garaile geratu zen Balentin, beste bost bertsolariri gehiago eginez: Uriarte, Bartolo, Betolaza, Llona eta Zarraga'ri. 24 urte gaz Getxon ospatu zen beste txapelketa bat ere irabazi egin zuen.

Harrezkero etenbako lanean ibilia dugu Errepublika denbora guztian, batez ere auteskunde aurretikoko asteetan, mitinak han eta mitinak hemen. Lauaxetaz eta Agirregaz ere sarri ibilia dugu Balentin. Elizondon behin egona dugu gerra aurretik, Irujo berba egiten eta Enbeitatar aita-semeak bertsoan. Hogeita hamabigarren

urtean Basarri eta Balentin Euskal Herri osotik 4 egunetako ibiltaldi bat eginak dira, Bilboko Euzko Gaztedik eratuta (Gasteiz, Iruñea, Orreaga, Donibane Garazi, Atarratze, Kanbo, Donibane Lohitzun, Donosti eta abar).

Gerrate garaian parte hartu eta 4 urte kartzelan egina. Eta luzaroko ixilunea izan zuen gero, 56an Bilboko Koliseo Albian Resurreccin María Azkueren omenaldian parte hartu arte. Haxe izan zen gerra osteko lehenengo agerraldia.

Txapelketak hasi ziren gero Bizkaia mailan. 58an Bilbaoko Arenalean, Alfontso Irigoien eta Nazareo Oleaga gidari zirela. Ordukoxea dugu baita Muxikako Bertsolari Eskola ere. Enbeitak berak diñosku:

«Hogeita hamaseian gerrak urte eban eta orduan amaitu ziran bertso ta osterantzeko. 37an ni kartzelan egon nintzan. Santanderren arrapatu ninduen eta gero 4 urte kartzelan, eta 36tik 56ra, Lehenengo urtenaldia Bilboko Azkueren jaialdira egin arte, bitarte horretan hogeitaz urtean guk ez genduan bertsorik egin. Mutu egin giñan. Bertsoetan asi giñanean erreztasuna galduta asko kostatu jakun barriro mugitzen bertsoetan».

Eskolari buruz, aitatzat batera, zera dino:

«1958an Bilboko Leheenngo Txapelketa jokatu zen eta urte beratan ipini genduan eskola hori, Areatzan. Garai haretan nik neure burua bakarrik ikusten neban hemen bertsolariarik. Eta nire koinatua, Irineo bertsolariaren aita, hori be zaletasun aundikoa, erdi bertsolaria da izan ere ta... bion artean pentsatu genduan Areatzan eskolea ipini behar genduala. Parte hartu ebenak 6 izan ziren hasieran. Lopategi, Iturri, Basabe Lumokoa, Ireneo Ajuria, Jon neure semea, Deunoro Sardui, eta neu. Eta Pedro Mari Aldana euki genduan idazkari, aurreko etxekoa. Horrek gaiak jarten ebazan, urrengo zapatuan bakotxak idatzita eroateko 4 bertso. Guk

urrengo asterako idatzita eroaten genduzan bertsoak. Eta Pedro Mari Aldanak makinaz idatzi eta artxiboan gordeten ebazan gaiok. Uste dot gaur be gordeta euki-ko dituela».

Balentin Enbeitak gogoz kontatzen dizkigu bere gauzak. Balentin bertsoak plazan botatzeko ez eze, idatzi egiteko, plazan kantaturikoak atzera gogoratu ta idazteko, bertso mamintsuak botatzearen zalea dugu. Behar bada, horrexegaitik erne dira hainbat landara on bere baratzen. Lantzeko, jagoteko, ontzeko... eta beti ere gehiagora joteko ahalegina ipini duelako.

Muxikako eskolak herri jokera nabarmena izan zuen sorrera bertatik. Herri oiturak, euskera, aberria... hoiexek ziren gai erabilienak Bizkaiko bertsolari zaharrek, Muxika aldekoak behintzat, 4 puntukoak baiña sarriago erabili oi zituzten lehenago 3 puntuko bertsoak. Baiña Balentinek eta bere osteko bertsolariek 4 puntura egin izan ei dute geientsuenean.

«Ez dogu oitu 3 puntukora egiten. Nik 3 puntura egiten ikasi ez nebanez, ez dogu sekula egin. 9 puntukoan ere egiten zan gure eskolan. Badira eskola haretan, gai jarri eta 9 puntuan ateratako bertsoak. Zapatu guztietan batzen giñan, eta 8 hillebete inguruan iraun eban. Mungian sortu zan txapelketa bat eta 4 bertsolari joan ziren gure eskolakoak. Irineo geratu zan txapeldun. Eta ez dakit gero... beste batzuek ere zeozer direla pentsatu edo... kurruka, konpondu eziña edo zeozer sortu zan tamalez. Lopategi eta Iturri aldendu egin ziran. Gu gero be batzen izan gara, baiña eskola orduan amaitu zan».

Gerra osteko urteak ilunak eta latzak izan ziren bertsolarien-tzat, eta Muxikako eskola garaiko txapelketa ta ondorengo gorakadaxoa izan arren, barrero ere mutu egin beharra subertatu zen. Bizkaian hain zuzen ere. Bilbo aldea euskaldun zedin bildur, non-

bait. Txapelketak eta jaialdia egitea galerezota egon da arrezkero 1970-71 ingurura arte. Delitu haundia zen. Durangoko Liburu eta Diskoa sortu zelarik, Bizkaia mailan bertsolari txapelketa bat ipintzea izan zen behineneko asmoa, baina galerazo egin zuen gobernari jaunak. Euskal Herriak ez ditu beingoan ahaztuko Coll de San Simon eta antzerako espaiñol amorratuak. Urte askotan bertsolariak Eubako pasiotarrak antolatutako jaialdietara eta beste leku banaketara joatea baino ez zuten.

### *BERRIRO ERE TXAPELKETAK*

Gaur ere txapelketa bidez bertsoa indartzeko asmoak umotu dira atzera. Birritan ospatu da Mallabian II. mailako bertsolari txapelketa. Eta, aurten ostera, gerra ostetxoko bide beretsuetatik herrialdeka antolatu gura dira txapelketak, Bizkaia-aren luze zabalean uriburu aitagarrientxoak aukeratuz eta tokian tokiko bertsolari gazteek parte har dezatela ahalegin eginez.

Gipuzkoan, orain artekoan txapelketa bi zituzten (ORIXE Saria Añorgan eta ZEPAI Saria Idiazabalen). Aurten, ostera, hirugarren bat eratu dute Zaldibin: Artxanberri Saria. Baina Gipuzkoan atondutako txapelketok Euskal Herri osorako izan oi dira, eta Bizkaikoak, ostera señoiorako bakarrik. Baina badirudi, horrez aparte ondo legokeela Bizkai barruan Euskal Herri osorako txapelketa bat antolatzea ere. Ez orain Bizkai mailan antolatzen denaren orde, horren ondoan beste berri bat baino. Bide horretatik, guztiei bideak zabaldu eta alkar ontzen joan daitezten errezago izango delakoan nago. Ia holan izaten den.